

Bezeroarekiko Harremanak

Gure enpresak bezeroekin harreman pertsonala izateko abagunea modu zehar batean eskaintzen du, dendetako langileen bitartez. Izan ere, orokorrean bezeroari eskaintzen diogun zerbitzua automatizatua da, hau da, bezeroa ez du dendetara joan beharrik, baizik eta gure webgune edo aplikaziotik aukeratu eta erosi ahal du. Gainera, gurekin lan egiten duten dendek, ondasunak etxera bidaltzeko aukera eman diete, horrela, zerbitzu osoa automatizatua izango litzateke.

Bestalde, webgune eta aplikazioaren zati batean, bezeroarentzako zerbitzua pertsonalizatua dago, hor, beraien kezkak konpontzen eta eskakizunak kontuan hartzen ditugu. Gainera, laguntza eskatu ahal dute eta modan espezializatuta dauden hainbat langile prest egongo dira beraien eskatutako laguntza emateko, bai ondasun jakin bat bilatzeko, bai bere janzkerari buruzko aholkuak emateko...

Horrez gain, bezero berriak erakartzeko zenbait teknika dauzkagu, adibidez, bazkide-txartela bat atera berri dugu, honekin, geure bezeroak deskontuak jasoko dituzte. Modarekin loturiko gauza guztien berri emateko aukera ere eskaintzen diegu, hau da, beraien e-maila ematen badigute, hilabete guztietan zehar jasoko dituzte beraien interesgarri suertatzen zaizkien iragarkiak. Izan ere, zerbitzu hau pertsonalizatua izango da, bezeroa amorratu edo aspertu ez dadin. Publizitatea ere izango da oso lagungarri bezero berriak bereganatzeko momentuan, hau da, gehien erabilitako plataforma digitaletan zein telebistan edota irratan iragarkiko gara, ahalik eta jende gehiagotara iristeko.